

OROIMEN HAZIAK

Mende laurden pasatxo igaro da, 1996ko irailaren 8an 26 emakumek jaietan parte hartzeko eskubidearen alde Hondarribiko Kale Nagusiko atari batetik atera eta alardean sartzen ahalegindu zirenetik. Malkoz, irriz, beldurrez eta alaitasunez betetako mende laurden honetan hazi bat erein da.

Eskuartean duzun paseo interaktibo honekin Jaizkibel Konpainiaren, alarde parekidearen aldeko borrokaren eta Hondarribiko historiako bestelako egite historikoak ezagutarazi nahi ditugu, egindako bidea memorian gorde dadin.

Maria Jose Noain Maura eta Ilargi Bengoetxea Gartzia hondarribiar historialarien jakintzak bildu ditugu eta Jaizkibel konpainiaren historia irudikatzen duten argazki gordinekin, zein Eider Eibar ilustratzaileak okasiorako egindako ilustrazioekin jantzi. Honekin guztiarekin testuz, audioz, argazkiz, PDF dokumentuz eta ilustrazioz jositako mapa ekoiztu du Parean elkarteak.

Pasarte bakoitza gainera, hirigune historikoko puntu bati lotuta agertzen da, jazotakoa indartuz batetik, eta oinez egin daitekeen paseo eder bat sortuz bestetik. Emakumeen eskubideen aldeko borrokan ikur bihurtu den Jaizkibel konpainiaren iragana ezagutarazi nahi dugu, oroimen haziak erein eta emakumeen eskubideen aldeko etorkizun oparoa loratzeko.

Jaizkibel Konpainiaren proiektua
Testuak. Ilargi Bengoetxea Gartzia eta María José Noain Maura
Ilustrazioak. Eidei Eibar Zugazabeitia
Argazkiak. Jaizkibel Konpainia
Audioen edizioa. Antxeta Irratia eta Parean Elkartea
Koordinazioa eta itzulpena. Parean Elkartea
Laguntza Teknikoa. UP Komunikazioa
Testuen zuzenketa: Ane Garcia Lopez

ARMA PLAZA

Bidasoa ibaiaren bokalean duen kokapen pribilegiatua dela-eta, Hondarribia kokaleku gutzizatua izan zen Erdi Aroko erresumentzat eta Europako monarkia handientzat. Uraren babes naturalak ia erabat inguratzen du Hondarribia, eta haren alde zaharra leku bikaina zen lurraldea kontrolatzeko, muino natural batean eraikita baitago. 1203an hiribildua sortu zenetik izan da toki desiratua; are gehiago, 1522tik aitzina, Nafarroako Erresumaren independentzia galdu ondoren.

Erdi Aroko harresia zaharkituta geratu zenean, Errenazimentuko gotorlekuak hartu zuen bere lekua, diamantezko punta formako bastioiekin eta sarrera ateekin, esaterako, Santa Maria eta San Nikolas nabarmenak. 1638. urtean bertara iritsi zenean, frantziar armadak harresiz inguratutako hiribildua ikusi zuen beste ezer baino lehen, elizaren eta gazteluaren silueta bereziarekin.

Hogei urte lehenago, 1618an, Hogeita Hamar Urteko Gerra hasi zen, Europako historia modernoko gatazka gordinenetako bat. Katolikoek eta protestanteek arteko talka erlijiosoaren ondorioz hasi zen Erdialdeko Europan, baina laster borroka politiko bihurtu eta Europako potentzia nagusiak gehituz joan ziren. 1635ean Frantzia batu zen gerrara eta, une horretatik aurrera, Frantziako Erresumak eta Monarkia Hispanikoak beren borroka berezia hasi zuten; hain justu, Hondarribia jomugan ipini zuen horrek.

Garai hartako Hondarribiko alde zaharra eta gaur egungoa ez ziren oso ezberdinak. Gaztelua jatorriz nafarra izan arren, gaur egun ezagutzen dugun itxura zuen, Karlos V.ak XVI. mendearen lehen erdialdean bultzatutako birmoldaketaren ondorioz. Harresiak eta bastioiak Filipe II.aren garaitik zeuden, eta Kale Nagusia eta San Nikolas kalea ardatz zituen gaur egungoaren antzeko alde zaharra babesten zuten. Eliza estilo gotikoz eraiki zuten eta absidearen inguruan defentsa-funtzioak zituen; hala, egungo itxura monumental bera zuen, baina kanpandorrea eraiki gabe zegoen oraindik. Hiriak artisauek jarduerak garrantzitsuak eta merkataritza oparoa zituen, portu garrantzitsuari esker. Ezerk ez zuen iragartzen hastear zegoen hondamendia, baina ez zen izango armada batek hiria setiatu zuen lehen aldia, ezta azkena ere.




KALE NAGUSIKO ATARIA

Hondarribiko Artxiboko dokumentu baten arabera, Bidasoaz bestaldetik zetozen Frantziako tropak ikusi zituen lehen pertsona Juana Mugarrietakoa izan zen. Juana Guadalupeko ermitako serora zen. Emakume ezkongabeek edo alargunek bete ohi zuten postu hori, eta elizak zaintzeaz eta mantentzeaz arduratzen ziren.

Guadalupeko ermitaren ondoan zuen etxean zegoela, danbor hotsak entzun zituen. Leihora atera eta baratzean lanean zen Salvadora Zabaleta kideari galdetu zion soinuaren jatorriaz. Frantses armada ikusi zuten biek, bandera zuriak goratuz, herrira hurbiltzen.

Egoeraren larritasunaz jabeturik, haientzat preziatuena zena salbu jartzea erabaki zuten: baselizaren barruan zegoen Guadalupeko Ama Birjinaren imajina. Eskultura manta batean bildu, besoetan hartu eta parrokia-elizaraino eramane zuten, bidean aurkitu zuten Katalina Labandibarren laguntzarekin. Han, alkateak, hiriko sindikoak eta bikarioak aldare txiki batean gorde zuten imajina, Ebanjelioaren alboan, aldare nagusiaren ondoan.

Frantziako armadak hiribildua setiatuta izan zuen bitartean, bertako biztanleak Guadalupeko Ama Birjinaren imajinara jo ohi zuten, Jainkoaren babes eskatzera. Garai hartan, fedea mendiak mugi zitzakeela uste zuten, eta, hain zuzen ere, handik bi hilabetera Frantziako armada erretiratu zenean, garaipena Ama Birjinaren esku-hartzeari egotzi zioten.



Hura ez zen izan baina, Juana Mugarrietakoa partaide izan zuen mirari bakarra. Borroka amaitu bezain arin Ama Birjinaren imajina Guadalupera itzuliko zutela agindu zuten hondarribiarrek. Ermita, baina, erabat suntsituta geratu zen, eta ez zuen sabairik ere. Borroka amaitu eta hilabete batzuetara, imajina Kale Nagusiko parrokiaren zegoen oraindik. 1639ko martxoaren 20an, elizako ateak itxi zituzten gaueko bederatzietan, ohi bezala. Biharamunean, ordea, Juana elizan bere zereginetan ari zela, imajina hartzen zuen aldare txikia erabat hutsik zegoela ohartu zen. Goiz hartan bertan Guadalupetik gertu igarotako norbaitek abisua eman zuen: Ama Birjinaren estatua ermitako aldarean zegoen, eta, jakina, inork ez zuen haraino eramanez. Hogeita bi lekukok baieztatu zuten gertatutakoa. Eta, urte bereko apirilaren 4rako, basilika konponduta zegoen, Hondarribiaren salbatzailetzat jotzen zena behar bezala hartzeko.



UDALA

1638ko uztailaren 1ean, Frantziako tropek Bidasoa zeharkatu eta Hondarribiko barruti gotortua setiatu zuten, Condeko printzearen agindupean. Beren bidean, Pasaia, Errenteria, Oiartzun eta Irun konkistatu zituzten. Hiribilduaren inguruan zeuden 20.000 soldadu frantsesen aurrean, 1.100 defendatzaile inguru zeuden, Hondarribiaren defentsaz arduratzen zen Domingo de Eguia militarren aginduetara. Diego de Butron zen hiriko kapitaina eta, aldi berean, alkatea. Tropen arteko alde nabarmena zen, eta arma bat hartzeko gaitasuna zuen edozein pertsonak balio zuen hiribildua defendatzeko. Soldaduen presentzia nahikoa ez eta Bordeleko artzapezpikuaren agindupeko flota boteretsu bat iritsi zen Bidasoaren bokalera.

Frantziako armadak kokaleku militarrek eraiki zituen hiria kanoikatzeko zenbait gune estrategikotan, hala nola Amuteko zubian, Guadalupen edo San Telmo gazteluan. Hortaz, hiria destakamenduz inguratuta zegoen setioa hasterakoan. Kroniken arabera, setioak iraun zuen hiru hilabeteetan hiriak 16.000 bala inpaktu eta kanoikada jaso zituen. Gudan parez pare zeuden monarkien asmoen mende zeuden hondarribiarrak: alde batean, Filipe IV.a Habsburgokoa zegoen Espainiako tronuan, eta bestean, berriz, Luis XIII.a Borboikoa, Frantziako tronuan. Hala ere, bi erregeek beren bi baliodunen esku utzi zuten gobernuak, hau da, Olivaresko konde-ducearen eta Richelieu kardinal ospetsuaren esku, hurrenez hurren.

Bi erregeak koinatu izateak ez zuen egoera baretu: 1615ean Filipe IV.a Frantziako Isabelekin ezkondu zen, Luis XIII.aren ahizparekin, eta urte horretan bertan Luis XIII.a Austriako Anarekin ezkondu zen, Espainiako erregearen arrebarekin. Erregina bilakatu ziren bi emakumeek Bidasoa zeharkatu zuten beren etxe berrira bidaiatzeko, "printzesen trukea" izenez ezagutuko zen gertakari historiko batean. Pedro Pablo Rubens-ek koadro bikain batean hilezkortu zuen une hori, eta Louvre Museoan dago ikusgai.

Tropak iritsi zirenean, harresi barruan babes hartzeko eta eurekin eduki zezaketen ganadu guztia sartzeko agindu zieten Hondarribiko biztanleei. Familia bakoitzak zuen janariaren inbentarioa ere egin zuten, ogi, ardo, haragi eta bakailao izakinekin, gero, dena batu eta agintarien esku jartzeko, apurka-apurka bana zedin. Litekeena da harresiak menderaezinak izatea, baina argi zegoen baliabideak bilatu behar zituztela gotorlekuaren barruan errefuxiatutako biztanleen biziraupena bermatzeko. Eskerrak edateko ura bermatuta zegoela hirian zulatutako putzuen bidez...



GERNIKAKO ARBOLA


Setioaren eta Jaizkibelen gorabeherak

Hondarribiko setioak 69 egun iraun zuen. Uda osoan zehar, Frantziako armada etengabe saiatu zen harresietan zulo bat irekitzen, gotorlekuaren barrura sartu ahal izateko. Hiriko biztanleentzako egoera beldurgarria izan zen, etengabeko alerta-egoera eta tentsioan, kanoiek berriro tiro egin edo frantziar tropak harresietara noiz oldartuko zain.

Gertaerak nola garatu ziren azaltzen duten kronika historiko xehatuak daude: Malvezzi, Palafox edo Moret-en kontakizunen kasua da. Zenbait dokumentu-testuk hiribilduaren defentsan parte hartu zuten pertsonen zerrenda ere jasotzen dute: 200 pertsonatik gora izendatzen dira, baina horien artean ez dago emakume bakar batena. Hala ere, argi eta garbi adierazten da emakumeek hiriaren defentsan izan zuten inplikazioa.

"Kontakizun" deritzen testuek gertaeren nondik norakoak zehatz-mehatz azaltzen dituzte, eguneroko formatuan. Haiei esker dakigu nola gertatu ziren ordukoak. Uztailaren 3an, gizonez jantzitako ehun emakume atera ziren, batzuk pika soinean, beste batzuk arkabuzarekin, eta agintariei eskatu zieten defentsa-postu batean jartzeko: agindu zuten hil artez zutela postu hori utziko. Egun horretan bertan, lubeta bat egin zuten Santa Maria atean, bere defentsa indartzeko. Egiteko horretan emakumeek lan egin zuten, adin-mugarik gabe, eta fajina edo egur-meta estrategiko bat fabrikatzen lagundu zuten. Adar mehez osatutako metak ziren fajinak, eta lurrez bete ostean, defentsa sendotzeko erabiltzen zituzten.

Halaber, jasota geratu da eraitsitako etxeetako egurrarekin emakumeak lubeten mantentze-lanetan jardun zirela. Egunez zein gauzez egiten zuten lan hori, haien bizitza arriskuan jarritz. Gobernadoreak uztailaren 6an Filipe IV.a erregeari eta Olivaresko konde-dukeari laguntza eskatuz bidalitako gutunean jasota agertzen da hori guztia. Bertan, defentsaren egoera ezegonkorraz eta jasotako janarien kalitate txarraz kezkatzeaz gain, ordu oro lan egiten duten emakumeen ekarpena nabarmentzen zuen.



Uztailaren 13an 150 soldadu irlandarren errefortzuak iritsi ziren, eta laguntza hori funtsezkoa izan zen. Erasoak bata bestearen atzetik gertatzen ziren, eta kanoien kolpeak etengabeak ziren. Bonbak ere jaurtitzen zituzten, eta, garai hartako hitzen arabera, “adoretsuenak ere izutzen zituen asmakuntza izugarri eta beldurgarri horrek”. Frantziako armadak kanpaina-bateriak instalatu zituen hainbat tokitan, eta bateria horien parte ziren morteroetatik jaurtitzen zituzten leherketa atzeratuko bonba horiek. Artilleriako pieza horietan arriskutsuena Erreginaren Baluarterantz bideratuta zegoen, eta hura izan zen eraso gehien jaso zituen eremua.

Armamentuaren gabezia oso nabaria zen, eta egoerari aurre egiteko, biztanleek peltre eta zilarrezko objektu guztiak agintariei eman zizkieten, metalak urtu eta munizioa lortzeko. Behin eta berriz erregeari gutunak bidaltzen zizkieten errefortzuak eskatuz, eta, Filipe IV.ak eskatutako laguntza bidaliko zuela aginduz erantzuten bazuen ere, tropak ez ziren inoiz agertzen, herritarren etsipenerako.



BRETXA

Setioaren amaiera eta Jaizkibel Kale Nagusian.

Harresi zeharkaezina gainditzeko baliatu zituzten estrategia ugarien artean, hobiak izan ziren ohikoenetakoak. Soldadu frantsesak hurbildu, eta lubakiak egiten zituzten aire zabalean; harresitik gertu zeudela, tunelak zulatzen zituzten —hobi delakoak—, eraikuntzaren zimenduetara iritsi nahian, bolbora kopuru handiarekin leherrarazteko. Zulatzaileen lana zen, eta ere hatxero esaten zieten. Ohikoa zen, halaber, defentsatropiek kontrahobi deiturikoak egitea, etsaien tunelak geldiarazi eta haien funtzioa eragozteko.

Mota horretako erasoak jasan zituen eremuetako bat elizaren eta gazteluaren arteko espazioa izan zen. Etsaien armadak arrakala bat egitea lortu zuen bertan, eta gertakari hark tokiaren izenean iraun du, egun “brecha” izenez ezagutzen baita. Hala eta guztiz ere, arerioek ezin izan zuten gotorlekuaren barrura iritsi.

Soldadu frantsesak gauz defentsak apurtzeko ahaleginetan ari zirela, hiribilduaren barruan honako sistema hau asmatu zuten: lubakietara zuziak botatzea. Ekintza horrekin ordu erdiz inguruak argitzen zituzten frantziarren ekintzak zelatatzeo eta etsaiak tiro egiteko jomugan gera zitezten. Harriak, bonbak eta ur beroa ere botatzen zizkieten lubakira, eta barrutik kexuak entzun ohi ziren.

Abuztuaren 31n, Irun eta Mendelutik errefortzuak iristen ari zirela ikusi bazuten ere, euri-erauntsiengatik ezin izan ziren hirira hurbildu. Sekulakoa izan zen euri-jasa, baina, zorionez, bizirauteko horren beharrezkoak ziren putzuak urez betetzeko balio izan zuen. Handik bi egunetara, oraindik ere euria etengabe ari zuela, biztanleek, etsita, Jainkoaren esku-hartzea eskatzea erabaki zuten, eta Ama Birjinari laguntza eskatzeko prozesioak egin zituzten. Irailaren 3an, Condeko printzeak, Hondarribiaren egoera larria ikusita, gutun bat bidali zuen eta amore emateko eskatu zuen. Bere proposamena atzera bota zuten.

Azkenean, irailaren 7an, irrikatutako errefortzuak iritsi ziren. Borroka gogor baten ondoren, frantziar armada garaitzea lortu zuten, eta horrek erretiratzeari ekin zion. Tropa garaileak bretxa edo arrakalatik sartu ziren eta poz handiz hartu zituzten. Presoen trukea egin zuten, eta ehun eta berrogeita hamar borrokalari berreskuratu zituzten. Hiribilduko soldaduek, batez ere irlandarrek, Frantziara ihes egin zuen armada garaituaren kanpamentuetako jabetzak hartzeko aprobetxatu zuten. 69 egun horiek, 16.000 kanoikadak, 467 bonbak eta zazpi bateriak atzean geratu ziren.



KANPANDORREA

1638. urte hartan bertan, bi armaden ordezkariak Kale Nagusiko Casadevante Jauregian bildu eta bi herrialdeen arteko su-etena sinatu zuten. Aldi baterako bakea izan zen, ordean, hamar urte gehiago igaro baitziren Hogeita Hamar Urteko Gerra Westfaliako Itunaren sinadurarekin amaitu arte. Azken akordio horrek ere ez zion amaiera eman Frantziako Erresumaren eta Monarkia Hispanikoaren arteko tirabirari, 1659. urtera arte luzatu baitzuten beren arteko gerra. Hogeita Hamar Urteko Gerraren amaierak Habsburgotarren gainbehera ekarriko zuen, Frantziako borboitar boterearen mesedetan.

Ospetsua da Gaztelako almiranteak bere emazteari gutun bidez helarazitako esaldia, setioaren amaieraren adierazgarri: "Adiskidea, gerraz ez dakizunez, etsaiaren eremua lau zatitan banatu zela esango dizut: batek ihes egin zuen, bestea hil egin genuen, besteari su eman genion, eta azkena ito egin zen. Geratu Jainkoarekin, ni Hondarribira noa afaltzera eta".

Irailaren 7an frantsesen aurka lortutako garaipena errefortzu tropen etorrerari esker gertatu bazen ere, Guadalupeko Ama Birjinari egotzi zitzaion lorpena. Gerra hasieran garaile ateraz gero agindu bezala, irailaren 8ro Guadalupeko ermitara prozesioan joateko konpromisoa hartu zuten. Botoa eman zuten, agintari zibil eta eliz agintari guztiek sinatuta. Aldi berean, prozesioa arma-ikuskapen bat zen: Erdi Arotik zetorren ohitura arrunta zen, non toki bateko biztanleek beren armamentua aztertu eta egintza sakratuan laguntzen baitzuten. Horrela, urteroko ospakizuna ekitaldi militar eta erlijioso bilakatu zen aldi berean. Dokumentuak zioen bezala, "inolako mugarik gabeko festa eta alaitasuna" zen.



DENDA KALEA

1659an, Monarkia Hispanikoaren eta Monarkia Frantsesaren ordezkariak Faisaien uhartean bildu ziren. Negoziazioek uda osoa iraun zuten, eta behin betiko bake-akordioa sinatzea izan zuten helburu. Akordio horri Pirinioetako Ituna izena emango zioten, bi herrialdeen artean ezarritako muga baitzen Pirinioetako mendikatea. Sinadurarekin, atzean geratu zen 38. urteko Hondarribiko setioa, baina bake famatuak zerikusi handiagoa zuen hamarkada batzuk lehenago gertatutakoarekin.

Urtebete geroago, 1660an, Luis XIV.a Frantziako erregearen eta Filipe IV.aren alaba zen Maria Teresa Austriakoaren arteko ezkontzarekin berretsi zen ituna. Hain zuzen ere, Eguzki Errege deiturikoa Hondarribiko setioaren urtean jaio zen, bere aita Luis XIII.aren oinordeko izateko. Halako pisu politikoa zuen ezkontza ezinbestekoa zen errege gaztearentzat, eta zer hoberik lehengo etsaiaren alabarekin ezkontzea baino, eta, horrela, bakea familien aliantzaren bidez zigilatzea baino.

Boterez ospatutako ezkontza izan zen Hondarribikoa; hau da, Frantziako erregeak ez zuen bertan egon nahi izan, eta Luis Mendez de Harok ordezkatu zuen. Infantak eta errege-segizio osoak Carlos V.aren gazteluan hartu zuten ostatu. Diego Velázquez pintoreak, gorteko ostalari nagusiak, protokoloa antolatzeko ardurak izan zuen. Ezkontza gertatu eta egun pare batera, Maria Teresa Faisaien Uhartera joan zen, bere aita erregearekin batera; bertan, senarrak zuhaixka artean zelatatu zuen, bere gustukoa ote zen egiaztatzeko. Ekitaldi horretan Filipe IV.a aspaldi ikusten ez zuen arreba Ana Austriakoarekin, erregina alargunarekin, elkartu zen berriro. Azkenik, ezkondu eta sei egunera, Austriako Luis XIV.ak eta Maria Teresak elkar ezagutu zuten ofizialki, emakumeak Bidasoa ibaia zeharkatu zuenean, Donibane Lohizuneko elizan zeremonia berriro egiteko.

Hondarribia eta Bidasoa errege-ezkontza baten lekuko bihurtu ziren berriro. Izan ere, belaunaldi bat lehenago, Maria Teresaren ama izan zen Bidasoan ospatutako beste errege ezkontza batean trukatu zutena. Historia errepikatu zen, eta emakume bat berriz erabili zuten itun politikoetarako tresna gisa.



GIPUZKOA PLAZA


Mendeetan zehar, emakumeek historia liburuetakoa orrietatik baztertu gaituzte. Biografia gutxi batzuek baino ez dute iraun, emakume noble, printzesa edota erreginen inguruan gehienetan. Gainera, paper pasibo bat esleitu izan diete haiei edo, botere-karguak bete izan bazituzten, konnotazio gutxiesgarriz estali izan dituzte. Hala ere, Aro Modernoko dokumentazioa aztertuz gero, emakume ugari agertzen dira lerro artean, enpresaburu garrantzitsuak izan zirenak edo garai hartako gizartean txoko bat egitea lortu zutenak, besteak beste. Eta, jakina, askoz gehiago izan ziren mota guztietako ekonomia-, kultura- edo gerra-jardueretan parte hartu zutenak, historiak kontrakoa esaten tematu arren.

XVII. mendeko emakumeek ezin zuten armadan sartu, gizon gisa aurkeztu ezean, Katalina Erausokoaren kasuan bezala. Baina behar izanez gero, gizonik adoretsuenak bezala borrokatzen ziren. 1638ko Hondarribiko setioa horren erakusgarri ona da.

"Hondarribia Hiri oso noble eta leialaren garaipen gogoangarri eta zoriontsuaren egunerokoa" izeneko kronikan jasotzen diren testigantzak argigarriak dira. Hondarribiko emakumeak Amazonekin alderatzen dituzte: mitologia grekoaren arabera, emakume gerlariak soilik osatzen zuten leinu mitikoa zen Amazonena, eta borrokarako zuten ausardiagatik ziren ezagunak. Izen ezezaguneko autorearen arabera, nazionalitate ezberdinetako soldaduak harritura geratu ziren emakumeek bretxan egiten zuten lanarekin, bai balekin, bolborarekin zein pikekin. Ez ziren erretiratzen, ezta gobernadorearen eskariaren aurrean ere: iraganeko ekintzetan gizonen lagun izan baziren, setioan ere hala izango zirela argudiatu zuten, nahiz eta horrekin heriotza aurkitu. Hildakoak eta zaurituak erretiratzeaz ere arduratzen ziren, horiek ehortzi edo sendatzeko. Hondarribiko emakumeak ezagutzen ez zituztenen horiek harritura geratu ziren euren ausardi eta kemenagatik.

Setioaren ostean idatzi eta erreferentziazko idazkien artean dagoen testu batean, José Moretek honela zioen: “Zein adorerekin ekin zioten biztanle gutxi horiek, heriotzarekiko mespretxuz, etsaien tropa ugariren aurka arriskuz beteriko setioa gainditzeko ahaleginari; emakumeak eta mutil-koxkorak ere ahalegindu ziren”. Lekukotasun gehiago daude: “Nahiz eta setioak hirurogeita bederatziz egun iraun, adoretu eta irmo defendatu zuten munduaren begien aurrean; hiru erasori eutsi zioten egun batean harresian hiru zulo zabalik egonda ere, eta bostehun gizon bakarrik izanda ere: bizilagun zein soldadu, osasuntsu eta zaurituak; emakumeek (gizon kopuru txikiagatik) antzinako Amazonen antzera ekin zioten”.

Horrela diote dokumentu-iturriek. Baina, testuek kontatzen dutenaz haratago, ez du axola emakumeak borrokatu ziren ala ez. Historian dugun papera ezin du inork ukatu, ez iraganean, ezta gaur egun ere.



BIBLIOGRAFIA

- PORTU, Florentino: Santuario de Guadalupe.
- SÁEZ GARCÍA, Juan Antonio (2020): Diario del sitio. Hondarribia 1638. Arma Plaza Fundazioa.

OROIMEN HAZIAK

Mende laurden pasatxo igaro da, 1996ko irailaren 8an 26 emakumek jaietan parte hartzeko eskubidearen alde Hondarribiko Kale Nagusiko atari batetik atera eta alardean sartzen ahalegindu zirenetik. Malkoz, irriz, beldurrez eta alaitasunez betetako mende laurden honetan hazi bat erein da.

Eskuartean duzun paseo interaktibo honekin Jaizkibel Konpainiaren, alarde parekidearen aldeko borrokaren eta Hondarribiko historiako bestelako egite historikoak ezagutarazi nahi ditugu, egindako bidea memorian gorde dadin.

Maria Jose Noain Maura eta Ilargi Bengoetxea Gartzia hondarribiar historialarien jakintzak bildu ditugu eta Jaizkibel konpainiaren historia irudikatzen duten argazki gordinekin, zein Eider Eibar ilustratzaileak okasiorako egindako ilustrazioekin jantzi. Honekin guztiarekin testuz, audioz, argazkiz, PDF dokumentuz eta ilustrazioz jositako mapa ekoiztu du Parean elkarteak.

Pasarte bakoitza gainera, hirigune historikoko puntu bati lotuta agertzen da, jazotakoa indartuz batetik, eta oinez egin daitekeen paseo eder bat sortuz bestetik. Emakumeen eskubideen aldeko borrokan ikur bihurtu den Jaizkibel konpainiaren iragana ezagutarazi nahi dugu, oroimen haziak erein eta emakumeen eskubideen aldeko etorkizun oparoa loratzeko.

Jaizkibel Konpainiaren proiektua
Testuak. Ilargi Bengoetxea Gartzia eta María José Noain Maura
Ilustrazioak. Eidei Eibar Zugazabeitia
Argazkiak. Jaizkibel Konpainia
Audioen edizioa. Antxeta Irratia eta Parean Elkarteak
Koordinazioa eta itzulpena. Parean Elkarteak
Laguntza Teknikoa. UP Komunikazioa
Testuen zuzenketa: Ane Garcia Lopez


ARMA PLAZA

Testuingurua eta lehen saiakerak

90eko hamarkadaren hasieran Hondarribiko emakume batzuk emakumeek Alardean parte hartzearen inguruan hitz egiten eta hausnartzen hasi ziren. 90eko hamarkada aro kontserbadore gisa definitu daiteke mundu mailan. 89an Berlingo Harresia eraitsi zuten eta 91ean Sobietar Batasuna desintegratu zen; horrela, mundu mailan kapitalismoa gailendu eta existitu zitekeen sistema bakar gisa aurkeztu zen. Espainiar Estatuan ere, 60 eta 70eko hamarkadetako ziklo iraultzaile eta antifrankista agortua zegoen, eta Euskal Herrian, aldiz, euskal gatazka momentu gordinenetan, gerra zikina eta borroka armatuak baldintzatuta. Mugimendu Feminista, berriz, desgastatuta eta indar gutxirekin iritsi zen 90eko hamarkadara: barne mailako zatiketek, izan zituzten lorpenek eta feminismoaren instituzionalizazioak higitu egin zuten 70 eta 80ko hamarkadetan izan zuen indar eta mobilizazio gaitasuna. Bidasoaldean, 80ko hamarkadako deslokalizazioak eta fabriken itxierak, eta 1995eko aduanen desagerpenak enplegu asko desagerrarazi zuen Irunen; langabezia maila altuak eragin zituen horrek, eta herriko dinamika guztiz aldatu zituen. Hondarribian, turismoaren gorakadak arrantzak ekonomian eta herri izaeran zuen protagonismoan eragin bazuen ere, garai hartan arrantzaleen borroka oso presente egon ziren: bolanten edo sare pelajikoen erabileraren kontra.

Testuinguru horretan kokatu behar dugu Hondarribian emakume batzuek, haien kabuz askok, Alardean emakumeek parte hartzearen inguruan hausnartzea eta hausnarketa horiek konpartituz zer edo zer egitea erabakitzea. Hamarkada kontserbadore horretan hazi bat landatu zuten.

Emeki Emakume Elkartearen barruan edo inguruan zebiltzan emakume batzuk 1993tik aurrera emakumeek Alardean parte hartzearen inguruan hitz egiteko eskaerak bidali zizkioten Udalari. Izan ere, Udala zen Alardea antolatzen eta finantzatzen zuena, Alardeko Junta eta agintarien juntarekin batera. Emekiko bazkideen artean desadostasunak egon baziren ere, bozketa bidez erabaki zuten Emekiren izenean aldarri eta eskaera horiek aurrera eramatea. Hasiera batean bilera horiek lortu eta egin bazituzten ere, 1994tik aurrera Udalaren eta Alardeko Juntaren isiltasuna izan zen nagusi. 1995ean Alardeko agintariek hartutako erabakia komunikatu zitzaizkien; emakumeek kantinera modura soilik parte hartzen jarraituko zutela.



Urte horretan ere, Emekik gai horren inguruan inkesta bat egiteko ideia izan zuen. Inkesta horren bidez, herritarren iritzia jakiteaz gain, Udaletik eta Alardeko Juntatik kanpo eztabaida eta hausnarketa sortzea ahalbidetu zen. Momentu horretan ere emakumeak Alardean ateratzearen alde antolatzen ari zirenen barnean eztabaidak izan ziren emakumeak nola edo zein postutan ateratzearen inguruan. Eztabaiden ondoren, emakumeak soldadu gisa, hau da, ordura arte gizonek betetako rol, postu eta jantzi berberetan ateratzearen alde lerratu ziren, Alardea ahalik eta gutxien aldatzeko asmoz.



ARGAZKIA: Jaizkibel Konpainia

KALE NAGUSIKO ATARIA


96ko Alarde eguna

Irunen, bertako Alardean parte hartzearen alde antolatzen hasi ziren emakumeak 1995ean ere, eta 1996an Alardeko ordenantzak aldatzen saiatu eta ukatu hori zietenean, urte hartako Irungo Alarde egunean 57 emakume soldaduz jantzi eta desfilatzen saiatu ziren, eskopeta sorbaldan. Irain eta mehatxu artean kanporatu zituzten.

Irungo Alardea pasa eta Hondarribikoa iristeko bi hilabete horietan, Udalarekin eta Alardeko Juntarekin emakumeen parte-hartzea negoziatzen saiatu ziren, Irungoa errepika ez zedin. Huts egin zuten ordea. Uztailean ere Emekik komunikatu zuen momentu hartatik aurrera BAE (Bidasoa Aldeko Emakumeak) izango zela gai hori landu eta aldarria aurrera eramango zuena. Garai horretan Emekiren kontrako erasoak hasi ziren: haien lokala harriekin eta zakar poltsak jaurtiz erasotu zuten. Ordurako, emakumearen parte hartzearen aldekoen inguruko ideia jakinak zabaldu ziren herrian: herriari min egiten ziotela, ez zutela herria maite eta ez zirela bertakoak.

Abuztuaren 14an Hondarribiko Alardean parte hartu nahi zuten emakumeek eskaera indibidualak egin zizkieten Udalari, Alardeko Juntari eta Agintariei: Alardean parte hartuko zutela adierazi zuten eta haien integritate fisiko eta morala babesteko eskatu zuten. Hori dela-eta, abuztuaren 28an prentsaurreko bat egin zuten egoera komunikatzeko. Bertan salatu zuten beldurra zutela, baina aurrera egingo zutela.

Irailak 7ko gauean, 26 emakume Kale Nagusiko 4. atariko etxebizitza batera joan ziren ezkutuan; arropa eskuetan ezkutatuta eta ordu desberdinetan, inork ikusi ez zitzan. Hurrengo egunean, Alardea Kale Nagusitik jaisten ari zela, Kosta konpainia atari aurretik pasatzean emakumeak atera eta desfilatzen saiatu ziren. Kosta konpainian sartzen saiatzea ez zen kasualitatea izan, bertan laguntzeko prest zeuden gizonak baitzeuden. Ataritik irten eta Alardean sartu ziren momentuan bertan irain, kolpe eta bultzaden bitartez emakumeak atari barnera itzularazi zituzten. Garai hartako Alkatea, EAJ alderdiko Borja Jauregi, elizan zegoen momentu horretan, eta, diotenez, kolpe eta irain guzti horien testigu izanda ere, ez zen bere tokitik mugitu.



1996ko Alardea pasata, eta borrokan jarraitzeko konbentzimenduarekin, emakumez osaturiko Juana Mugarrietakoa elkarte sortu zuten, Irun eta Hondarribiko errealitateak kontuan hartu eta estrategia ezberdinak ahalbidetzeko. Izen hori aukeratzea bertakoak ez zirelako ideia eta kanpotar estigma hori iraultzeko saiakera izan zen: bertakoa izan zen emakume baten izena aukeratu baitzuten.



ARGAZKIA: Jaizkibel Konpainia

UDALA

1996ko Alardetik 1997ko Alardera

1996ko Alardeen ostean ezer ez zen berdina izan, inork espero ez zuena gertatu baitzen: 25 urte baina gehiago iraun duen eta oraindik bizirik dagoen gatazka lehertzea. Momentu horretatik aurrera ere Hondarribian lehen aldiz entzun ziren irainak estigma bilakatu ziren, errepikapenaren bitartez: kanpotarra, puta, lesbiana, marimacho, bigotuda, eskopetera. Aurrerago ere HBras, etarras edo españolas.

Hondarribiko kultura-zinegotzi eta alkateordearen adierazpenek gertatutakoari garrantzia kendu zioten. Udalak ezer gertatu ez balitz bezala jarraitu zuen, eskaerei entzungor eginez, baina herriko sektore bat antolatzen hasi zen: ondoren, Betiko Alardearen Aldekoak elkarteak sortu zuten eta emakume soldadurik gabeko Alardea defendatzeari ekin zioten. Horretarako, Alardearen pribatizazioa bultzatu zuten eta Udalak ondoren sortuko zen Alarde Fundazioaren esku utzi zuen Alardea. Pribatizazioak legeak araututakoa saihesten lagundu zuen, bai eta emakumeak Alardetik kanpo mantentzen ere. Izan ere, lehen urte hartatik aurrera, prozesu judizialak hasi ziren bai Irunen eta bai Hondarribian, lege eta epaitegiek Alardeetan emakumeen parte hartzea babestuko zutelakoan. Horrez gain, erasoak eta mehatxuak anonimoki egin eta komunikatuak atera zituztenek ere emakume soldaduen kontra egin zuten, beldur eta gorrotoaren bidez. Gatazkek guztia zipriztindu zuen.

Emakumeen parte-hartzearen aldekoek ere antolatzen jarraitu zuten, Juana Mugarrietakoa elkartearen bitartez. Manifestazioak eta beste hainbat ekimen egin zituzten, haien kontrako diskurtsoa, hau da, Alardea suntsitu nahi zutelako ideia, desmuntatzen saiatzeko. Gatazka hasi zenetik eta 2023ra arte EAJ/PNV egon zen alkatetzan. Urte luze horietan, Udalak inoiz ez zuen emakume soldaduen alde posizionatu, guztiz kontrakoa, eta beraz, Alarde egunetan ez zion inoiz harrera egin Jaizkibel konpainiari. Hala ere, azken urteetan udaletxearen arkupeak emakumeen parte hartzearen alde dauden erakunde sozial eta politikoetako ordezkari desberdinen kokaleku bihurtu da, eta haiek bete dute Udalak utzitako hutsunea. Gainera, 2023ko maiatzeko udal hauteskundeetan aldaketa politikoa gertatu zen, eta Abotsanitz alderdiak bereganatu zuen alkatetza. 2023an, alkateak lehen aldiz egin zion harrera Jaizkibeli, bai eta Alarde baztertzaileari ere



ARGAZKIA: Jaizkibel Konpainia


GERNIKAKO ARBOLA Jaizkibelen sorrera eta 1997, 1998 eta 1999ko Alardeak

1997ko Alarde eguna gerturatu ahala, konpainia bat sortzeko ideia sortu zen. Emakumeek Alardeko edozein konpainiatan parte-hartzeko eskubidea aldarrikatzea zen horren helburua, baina, momentuz, emakumeek bakarrean parte hartzea onartuko zuten, eta beraz, beste guztietan ez. Proposamen hori aldi baterako pauso gisa planteatu zen, helburu nagusi hori lortu bitartean.

Eztabaida oso gogorren ondoren, gizon-emakumez osatutako konpainia bat sortu zen: Jaizkibel. Batzuentzat, konpainia bat sortzea amore ematea zen eta hortik sortu ziren eztabaidak. Jaizkibel sortu zenean 52 pertsonak osatu zuten. Ostegunetan egiten ziren entseguak; pertsona talde batek bideoz grabatzen zituen eta arrautzak botatzen zizkieten.

Urte horretan Jaizkibel ez desfilatzeko prest zegoen, tentsioa jaitsi eta elkarrizketa bultzatze aldera, baldin eta Udalak bere egiten bazuen Gasteizko Legebiltzarrean alderdi guztiek (EAJk barne) onartu zuten deklarazioa. Adierazpen hark zioen Udalak Alardean emakumeen parte hartzea bultzatuko zuela. Onartu ez zutenek, Jaizkibel konpainiak Gernikako Arbolaraino desfilatu zuen irailaren 8an, kantinera jaso ondoren, eta, bertan, Alardean desfilatzeko baimena eskatu zioten burgomaisuari. Hitzartuta zegoen onartu ezean atzera egingo zutela. Dena aurreikusia zegoela pentsatzen bazuten ere, ezustekoa egon zen. Gernikako Arbolaraino iritsi aurretik, burgomaisuari baimena eskatzera, Biteri parean, batez ere emakumez osaturiko tapoi batekin topatu ziren. Urteetan zehar luzatuko zen beste tradizio edo praktika baten hasiera izan zen: tapoi horrek Jaizkibel beste konpainiekin elkartzea ekidin zuen. Burgomaisuaren ordean, Alardeko kapitain bat gerturatu zen baimena eskatzen zion gutuna jasotzera; ezezkoa eman eta Jaizkibelek buelta eman zuen.

1998 eta 1999. urteetan, Jaizkibelek Gernikako Arbolaraino iristeko saiakerak egin zituen, baimenik eskatu gabe orainoan, eta Alardean sartzeko intentzioarekin. 1998. urtea "baratzen urtea" bezala ezagutzen da. 107 pertsonaz osatutako konpainiak eta babes katea osatzen zuen pertsona taldeak baratzetatik Alamedara joan eta handik Gernikako Arbolaraino iristeko saiakera egin zuen. Azpimarratu beharra dago Jaizkibelek urte luzeetan egindako bidea ezinezkoa izango litzatekeela konpainiak kanpoan izandako babesik gabe. Gernikako Arbolaraino iritsi baziren ere, Ertzaintzak inguratu eta ez zituen Alardera batzen utzi, integrazio fisikoa eta ordena publikoa babesteko aitzakiarekin.



1999an, berriz, aitzakia berbera baliatuta, Zezen Plazan kordio polizial bat eratu zuten Jaizkibelen bidea mozteko. Konpainiak lehen kordioa pasa bazuen ere, bigarren batekin topo egin zuen. Orduan karga gogorak izan ziren, Jaizkibeiko kideek eserialdia egin zuten, baina kolpeka eta arrastaka atera zituzten bertatik. 12 pertsona zauritu eta ospitalean artatu behar izan zituzten poliziaren kolpeen ondorioz.



ARGAZKIA: Jaizkibel Konpainia

BRETXA

2000ko Alarde eguna

2000. urtea guztiz ezberdina izan zen. Lehen eta azken aldiz, Eusko Jaurlaritzaren aginduz eta sententzia batetan oinarri hartuta, Jaizkibelek Alardean parte hartzea ahalbidetzeko agindua zuen Ertzaintzak. Esan bezala, emakumeek Alardean parte hartzeko helburuarekin bide judicial bati ekin zitzaion 1996an bertan. Lehen urteetan Alardea publikoa zeneko sententziak emakume soldaduen aldekoak baziren ere, pribatizazioaren ostean biltzeko eta antolatzeko eskubide pribatua berdintasunaren eskubidearen gainera geratu zen eta, beraz, emakume soldadurik gabeko Alardeak legalitatearen barnean geratu ziren. Alardea publikoa zeneko sententziak emakume soldaduen aldekoak baziren ere, kontrakoek lortu zuten Alardea emakume soldadurik gabe mantentzen.

2000. urtean Ertzaintzak Jaizkibel Alardean sartzeko agindua zuen, Alardea irekitzeko agindua, hain zuzen. Alardea, ordea, hatxeroek irekitzen dute. Guzti horrek hautsak harrotu zituen eta emakume soldaduen kontrako erreakzioa nabarmen gordindu zen. Urte horretakoak dira Talaia eskolako entseguetako itxialdi behartuak, ehunka herritarrek oihu, mehatxu eta tapoi bitartez Jaizkibel eskolatik ezin irten utzi zutenekoak, baita kaleetako tapoi masiboak ere. Urte horretatik aurrera ere istiluen kontra espezializatutako polizia bidaltzen hasi ziren, ezkutu, borra, pilota-jaurtigailuekin eta abar.

Jaizkibel konpainia Alardea Kale Nagusitik behera desfilaratzeko momentuan kokatu behar zen, baina ehunka pertsonak bidea itxi zuten lurrean eserita. Ordu asko egon ziren han itxaroten, eta azkenean ertzaiek tapoiko 57 lagun atxilotu bazituzten ere, amore emateko agindua jaso zuten. Guadalupeko desfilean ere parte hartzen saiatu ziren, baina berriro ere ezinezkoa izan zen. Arratsaldean, gertaerak errepikatu ziren. Oraingoan Jaizkibel konpainia ibilbidean kokatu zen, Jabier Ugarte Plaza parean. Tapoi handi batek gelditu zuen, baina Alarde tradizionala atzetik zetorren. Ibilbidea aldatu eta konpainia mistoa bakarrik utzi zuten. Jaien bitartean tapoietako 80 pertsona atxilotu bazituzten ere, inongo ondorio legalik gabe aske utzi zituzten.



ARGAZKIA: Jaizkibel Konpainia

KANPANDORREA

2001etik 2004rako Alarde egunak

2001 eta 2002 urteak ezberdinak izan ziren ere. Aurreko urteetako Alarde egunak tentsio eta konfrontazio handikoak izan ziren. Horrek desgaste eta min handiak eragiten zituen, kontuan hartuta urte osora luzatzen zela gatazka. Gainera, 2001ean Alarde pribatizatuaren alde irten ziren sententziek emakume soldadurik gabeko Alarde tradizionala babesten zuten, eta, hortaz, Ertzaintzak emakume soldaduak Alardean ez sartzeko agindua zuen.

Frustrazio, indignazio, tristura eta inpotentzia handiko urteak izan ziren. Izan ere, sei urte zeramatzaten saiatzen eta borrokatzen, eta bazirudien guztia kontra zutela. Bide judiziala ere agortzen hasi zen. Hala ere, nahiz eta indarkeriazko egoera horiek gertatu, Jaizkibekek bere sorreratik inoiz ez zion irailak 8an desfilatzeari utzi: kalean egon zen. 2001 eta 2002an baimenekin arazoak izan zituzten eta, Alardean sartuz gero Ertzaintzak kanporatuko zituztela jakitun, urte horietan herriko bazterretatik desfilatu zuten, Saindua ingurutik.

2003. urtera arte itxoin behar izan zuen Jaizkibekek lehen aldiz ibilbide osoa egin ahal izateko; hori bai, konpainiak bakarrik eta ordutegi desberdin batean. 11.00etatik 13.00etara desfilatzeko baimena eskatu zuen Jaizkibekek, Alarde tradizionalako ordutegitik guztiz kanpo, eta lortu zuen. Jaizkibekeko kideek oso positiboki baloratu zuten ibilbide osoa egitea. Ixabel Alkain Jaizkibekeko kapitainak gatazkaren amaieraren hasiera zela adierazi zuen, nahiz eta ohartarazi bide luzea zutela oraindik ere egiteko.

2004. urtean berdin gertatu zen. Jaizkibel konpainia Alarde tradizionalaren ondoren atera zen, hasieran pankarta bat zeramatzela, Alarde publiko eta bakarra eskatzen. Ordurako Alardea pribatizatu zegoen: horrek herriaren muturreko sektorea lasaitzea eragin zuen eta tentsioa jaisten joan zen. Izan ere, jada ez zen ofentsiba hori behar emakume soldaduak Alardean sartzeko ekiditeko: momentu horretatik aurrera Ertzaintzak beteko zuen paper hori.



DENDA KALEA

Berdintasunerako Legea eta plastiko beltzak

Poliki-poliki, Jaizkibelek espazio berriak irabazi zituen. 2005. urtean EAeko Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Legea indarrean sartu zen eta bertako artikulua batek hurrengo zioen: "Debekatu egiten da emakumeek gizonetik berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura-jarduerarik antolatzea eta egikaritzea gune publikoetan". Hori irakurrita, askok pentsatu zuten Alarde tradizionalak desfilatzen jarraitu ahal izateko emakume soldaduak onartu beharko zituela, baina legeak interpretazio ezberdinak izan zituen eta borondate politikorik ez zen egon Alardean artikulua hori aplikatzeko.

Berdintasunerako Legeak Jaizkibel konpainiak ordutegietan lehentasuna izatea eragin zuen; ondorioz, Alardeko ordutegia lortu zuen, eta Alarde tradizionalaren aurretik desfilatu zuten. Poliki-poliki, espazio eta denboraren bazterretatik, Jaizkibel konpainia zentroa konkistatzera pasa zen. Horren ondorioz, 2005. urtean, urte luzeetan luzatuko zen beste tradizio eta praktika martxan jarri zen lehen aldiz: plastiko beltzak. Lehen urteetan plastiko beltzak oso altuak ziren eta Kale Nagusi osoa hartzen zuten.

2005. urtean ere dagoeneko kantineraren merienda ospatu ahal izan zen. Arratsaldean meriendaren bueltan jai girora gerturatzeko aukera txiki bat egon zen. Denda kalean. Meriendarekin beste espazio bat konkistatu zen, alaitasunaren, ospakizunaren espazioa; izan ere, emakumeei desfilatzeko eskubidea ukatu zitzaientzen, baina jai bizitzeko eta ospatzeko aukera ere kendu zieten lehen urte horietan. Eguneko tentsioak atzean utzi eta elkarrekin egunean bizitakoak partekatzeko eta disfrutatze momentua bihurtu zen. Toki ezberdinetan egin izan dira merienda horiek; Denda Kalean, Zezen Plaza auzoan, Olagarro elkarteetan...



**ARGAZKIA: Jaizkibel Konpainia
Juan Carlos RUIZ/ ARGAZKI PRESS**

GIPUZKOA PLAZA

2006tik 2023rako Alarde egunak

Aldaketak aldaketa, 2005etik aurrera urtero desfile du Jaizkibel konpainiak Alarde egunetan. 2020 eta 2021 urteak izan ziren salbuespena; izan ere, COVID-19ak sorturiko krisiak eta horri aurre egiteko harturiko neurriek bi urteetan jarduera masiboak debekatu zituzten.

2005etik aurrera plastiko beltzak Hondarribiko tradizioaren ikur bilakatu badira ere, txikitzen joan dira, 2022an desagertu diren arte. Hondarribia bazterketarekin lotzen den irudiaren aurrean, Jaizkibelek Hondarribia Berdintasunaren Hiria saria antolatzen du urtero, 2015etik. Ekimen horrek "emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egin duten pertsonak edo erakundeak" aintzat hartzeko helburua du.

Hasierako garaian zegoen urte osoko tentsio eta gatazka ere lausotzen joan da, eta Alarde egunera mugatu. Konpainia handitzen joan da: 1997an 52 kideek desfile zuten Jaizkibelen eta 2022an 1.000tik gora izan ziren. 2006tik aurrera gertatu zen parte-hartzaileen kopuru-igoera handiena, gazte belaunaldi berri bat desfilez hasi baitzen. Zifra horiek konpainian desfilez dutenenak dira, baina kanpoan eta Jaizkibel babesten geroz eta gehiago ere izan dira. Azken urteetan, Gipuzkoa Plazan egiten du Jaizkibel konpainiak Alarde amaierako Zapatero ekitaldia, konpainia babesten duten lagun guztiekin, eta borroka eta jaia elkar topatzen diren leku nagusia bihurtu da. Aipatu bezala, 2023. urtean Udal-gobernuaren aldaketak esperantzak ekarri ditu, Alardearen inguruko Udal politiken norabide berriak gatazkaren konponbidean lagunduko duelakoan.



**ARGAZKIA: Jaizkibel Konpainia
FOKU**